




ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

2025

ttipi-ttapa | 887 zk. | 2025-10-02



AUTOKONTSUMO INSTALAZIOAK NAFARROAN, 2019-2024

Autokontsumo instalazioen kopurua



Instalatutako potentzia, guztira



Autokontsumorako instalazioak goraka

Autokontsumorako instalazioen kopuruak gora egin du erritmo bizian urtetik urtera. Gehien gehienak (% 93,4) eguzki panelen instalazioak dira eta, gainerakoak, etxeko eolikoak eta kogenerazio instalazioak.

Nahikoa da ezkerreko grafikoei begiratzea bilakaeraren abiada ikusteko. Izan ere, Nafarroako Gobernuak Trantsizio Energetikoko Zerbitzua-

ren bitartez gisa honetako instalazioak diruz laguntzen hasi zenean, 2019an, Nafarroa osoan 204 autokontsumorako instalazio lagundu zituen diruz, eta 2025eko irailean, jada, 10.921 instalazio ageri dira zerrendan diru-laguntzaren baten onuradun izan direlako.

Kopuru horietan sartzen dira autokontsumorako instalazio guztiak, bai indibidualak (% 93,6) zein kolektiboak (% 6,4). Azken hauen artean

hastapenetatik energia herritar eta burujabea sustatzen



goiener



ekarri zuk ere argindar
faktura goienerre

- 📍 Bidazi. San Esteban 11. Bera (hilero lehen ostiralean)
- 📍 Santesteban Musikaria kalea 5. 20011 Donostia
- 📍 Kale Berria 111. 31001 Iruñea

☎ 900 816 365

✉ goiener@goiener.eus

🌐 www.goiener.eus



daude, konparazio batera, dagoeneko ofizialki erregistratuta eta dirulaguntza hartu duten komunitate energetikoak eta bizilagunen komunitateak.

Autohornikuntzari esker argindarraren faktura murriztea da instalazio hauen helburua

Horretarako, energia kontsumorik handiena sortzen duten tresnak eta lanak, egunaren erdiko orduetan programatzen dituzte eguzki panelak instalatuta dituztenek. Eta panelez gain batera ere instalatuz gero, gehien sortzen denean erabili ez den elektrizitatea baterian metatua geldituko da, argirik ez dagoenean erabiltzeko. Zernahi dela, argi dago autokontsumoaren aldeko apustua egiten duenak beti aurreztuko duela argindar konpainiaren fakturan.

Bateriaz gain BackUp sistemaren bat instalatzea ere kontuan hartzekoa da

Zer gertatzen da Iberdrolarena den sare elektrikoan mozketa bat edo

itzalaldi bat dagoenean? Bada, gure autokontsumo instalazioari ez badiogu BackUp sistemaren bat instalatu, elektrizitaterik gabe geldituko garela, nahiz eta bateria bat instalatua izan eta bateria hori toperaino kargatua egon.

Dena den, BackUp fotovoltaiako baten funtzionamendua erraza, eraginkorra eta automatikoa da. Mozketak elektriko bat gertatzen denean, BackUp sistema bati konektatua dagoen inbertsoreak (panelen korronte zuzena korronte alferno bihurtzen du inbertsoreak), berehala detektatzen du argindar mozketa bat gertatu dela, eta automatikoki hasten da etxea argindarrez hornitzen bai eguzki paneletatik edo baterietatik. Hau da, bateriei energiari gelditzen zaien bitartean, etxean argindarra izanen dugu, gutienez etxetresna kritikoak (hozgailua, etab.) funtzionatzen segi dezaten.

Jakina, sistema hauek profesional homologatuek instalatu behar dituzte, eta indarrean dagoen legeria bete behar dute.

Froling etxearen **S4 Turbo** egur galdara bat da, kondentsaziorik gabe egurra erabat erretzen duena. Eraginkortasun handiko galdara, emisio gutti eta energia gutti kontsumitzen duelako nabarmetzen dena.



Alemanian gehien saltzen den egurrezko galdara

Gasa Ura Kalefakzioa

Dirulaguntzak eskatzeko eta errenta aitortpeneko tramiteak egiten ditugu.

ITURGINTZA ETA BEROKUNTZA INSTALAZIO OSOAK

AEROTERMIA

GASOLIO ETA GASAZKO GALDERAK

EGURREZKO GALDERAK

PELLET ESTUFAK

TXIMINIAK

TXIMINIEN GARBIKETAK

PATXI MUTUBERRIA ITURRIA

Tel. 686.235.230 · patxi@gukiturgintza.com

froling

ERAKUSKETA:
Bidasoa, 45 - **BERA**

Zalain Ind., 42 Bera.

948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

DIRU LAGUNTZAK TRAMITATZEN DITUGU



BERRI S.L.

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK




DOMOTIKA



IBILGAILU ELEKTRIKOA



KARGATZEKO GUNEA



EGUZKI PANELAK

Instalazio gehienak 2023-2022an egin ziren

**LEIMEN** S.L.

Era guztietako elektrizitate lanak




LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 david

RITE ziurtagiria CIT 1878

**SUARIMA**

Negua etorri aitzinetik...

**TXIMINIA ETA
KEDAR-GARBITZAILEA**



- KALITATEKO ERREBISIOA ETA GARBITZEA
- KAMERAREKIN BISTARATZEA
- ARAZOAK KONPONTZEKO AHOLKULARITZA
- GARBIKETA ETA BIGARREN BISTARATZEA

ESKERRIK ASKO KONFIDANTZARENGATIK!

T. 686 776 686
www.suarima.com
amaiur1212@gmail.com

Beheko taulan ageri dira herriz herri eta urtez urte zenbat instalazio egin diren. Nafarroako Autokontsumoaren Erregistroak biltzen ditu datu hauek eta, funtsean, Nafarroako Gobernuak zenbat instalazio diruz lagundu dituen erakusten du. Osotara 385 zeuden erregistratuak 2025eko irailaren 15era bitarte, eta gehienak Bortzirietan (151 instalazio) eta Baztanen (125 instalazio). Bi eskualde horietako herri guztietan bada autokontsumorako instalazio bat baino gehiago

egina. Eta kontrara, lau herritan ez da ageri instalaziorik egin denik edo, norbaitek instalaziorik egin gabe ere, dirulaguntzarik eskatu gabe egin duela pentsatu beharko dugu. Zehazki Eratsun, Ezkurra, Oiz eta Urdazubi dira. Azkeneko herri honen kasuan, egia erran, bada azalpen arrazoizko bat: Elektra Urdazubi. Izan ere, Elektra Urdazubi herriarena den sozietate publikoa da, eta berak banatu eta saltzen du argindarra Urdazubin baldintza ezin hobean.

AUTOKONTSUMO INSTALAZIOEN ERREGISTROA 2019-2025									
Nafarroako Gobernuaren azkeneko eguneraketa: 2025/09/19									
Herria	Instalatutako potentzia osotara	Instalazio kopuruak							
		Osotara	2025	2024	2023	2022	2021	2020	2019
Almendoz	10,60 kW	3		1		2			
Amaiur	61,12 kW	3			2		1		
Aniz	75,00 kW	3					1		
Arano	3,60 kW	1		1					
Arantza	193,10 kW	23	2	1	5	9	4	2	
Areso	830,80 kW	8	1		3	3	1		
Arizkun	70,60 kW	11	1	1	4	3	2		
Arraioz	28,92 kW	5		2	2	1			
Azpilkueta	72,60 kW	5		2	3				
Beintza-Lab.	3,00 kW	1				1			
Bera	991,59 kW	58	3	4	23	22	5		1
Berroeta	75,00 kW	4			2	1	1		
Donamaria	66,08 kW	12	3		8	1			
Doneztebe	169,00 kW	13		2	8	2	1		
Elbete	5,00 kW	2		1	1				
Elgorriaga	106,00 kW	2				1	1		
Elizondo	377,75 kW	40	1	4	19	10	4	2	
Eratsun	0 kW	0							
Erratzu	95,40 kW	16		1	5	7		3	
Etxalar	74,43 kW	11		1	7	3			
Ezkurra	0 kW	0							
Gartzain	39,00 kW	4	1	1	1	1			
Goizueta	48,00 kW	3	1		1				1
Igantzi	205,20 kW	18		5	3	10			
Irurita	28,00 kW	6	2	1	1	2			
Ituren	32,60 kW	5	2		2	1			
Legasa	100,00 kW	1			1				
Leitza	261,12 kW	21	1	4	4	8	3	1	
Lekaroz	62,36 kW	7		1	3	3			
Lesaka	895,15 kW	41	4	9	12	9	6	1	
Narbarte	90,00 kW	7	3	1	2	1			
Oieregi	0 kW	0							
Oiz	45,00 kW	5		1	1	2		1	
Ornoz	121,46 kW	10			3	5	1		1
Saldias	6,00 kW	1		1					
Sunbilla	82,04 kW	15	1	6	3	4		1	
Udazubi	0 kW	0							
Urroz	77,24 kW	7	1	1	3	1	1		
Ziga	32,20 kW	6	1		2	2	1		
Zubieta	14,00 kW	2				1	1		
Zugarramurdi	45,20 kW	5	1	1	2	1			
Denera	5.494,16	385	29	55	136	117	34	11	3

Dirulaguntzak partikular, elkarte eta enpresentzat

Nafarroako Gobernuak, Trantsizio Energetikorako Zerbitzuaren bitartez, laguntzak eta zerga kenkariak onartzen ditu urtero efizientzia energetikoari begira edo energia berriztagarrietan inbertsioa egin nahi dituztenentzat

Laguntza deialdi gehienak urteko lehen hiruhilekoan argitaratzen dira eta eskaerak aurkezteko epe mugatua izaten dute. Hortaz, komeni da erne egotea efizientzia energetikoari begira edo energia berriztagarrietan inbertsioaren bat egitea aurreikusiz gero. Horren inguruko informazio zehatza ikusteko eskaneatu QR kodea.



2026ko lehen hiruhilekoan argitaratuko diren laguntzak

Hemen segidan zerrendatzen direnak ez dira, jakina, 2026an aterako diren guztiak, batzuk bakarrik, lehen hiruhilekoan Nafarroako Gobernuak bere funts propioekin aterako dituen batzuk. Laguntza eta kenkariaren inguruko informazio zehatzagoa izateko, galdetu Trantsizio Energetikorako Zerbitzuan (848 429 700) edo orrialde hauetan ageri diren enpresa instalatzaileetan.

ETXEBIZITZAK:

Bizitegi sektoreko deskarbonizazio jardueren deialdia (2026 eta 2027):

Energia Eraginkortasuna eta berriztagarriak.

NEKAZARITZA:

Nekazaritza eta abeltzaintza sektorean berriztagarriak ezartzeko deialdia (2026): **Energia berriztagarriak.**

INDUSTRIA:

Deskarbonizazio planen deialdia (2026): **Energia Eraginkortasuna.** Industriako deskarbonizazio jardueren deialdia (2026 eta 2027): **Energia Eraginkortasuna eta berriztagarriak.**

UDALAK:

Toki erakundeetan trantsizio energetikorako jarduketaren deialdia (2026): **Energia Eraginkortasuna eta berriztagarriak.**

ELKARTEAK:

Irabazi asmorik gabeko erakundeeetan trantsizio energetikorako jarduketaren deialdia (2026): **Energia Eraginkortasuna eta berriztagarriak.**

MUGIKORTASUNA:

Moves III: 2025eko eskaerak aurkezteko epea zabalik dago abenduaren 31ra arte. Hori bai, oraingoz ez dago garbi 2026an Espainiako Gobernuak Moves deialdi berri bat egingen ote duten. Eta **ibilgailu zaharrak txatar bihurtzeko laguntzekin** ere (2026) berdin gertatzen da. Nafarroako Gobernuak 2026ko aurrekontuak onartzen dituenean argituko da kontua.



647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean



ELEKBERRI INSTALAZIO ELEKTRIKOAK EGUZKI PANELEN INSTALAZIOA

- Proiektu pertsonalizatu, baimen eta dirulaguntzen gestioa
- Amortizazio planen azterketa
- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen instalazioa
- Finantziazio aukera



646854825 / 616898065 · elekberri@gmail.com · Elizondo (Baztan)

Eskura dugun energia iturri berriztagarria



**ITURGINTZA
GASA
BEROGAILUAK
AIRE GIROTUA
KOMUNeko & SUKALDEKO
OSAGARRIAK**

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Aeroterminia, Geoterminia,
Egur eta Pellet galdarak

**Zerbitzu
& Gremioen koordinazioa**



**Biomasa galdarak
(egurra, pelleta eta ezpalak)**

Geoterminia eta aeroterminia

Instalazioa eta mantentze lan ofizialak

Interneten bidez pellet salmenta

Autokontsumorako eguzki-plakak



Deitu konpromisorik gabe!

www.orleghy.com
info@orleghy.com

T. 948 562 604 - M. 603 417 554



FREEPIK

Biomasa, erregai fosilak alde batera utzi eta energia iturri ekologikoen bila ari direnentzat, alternatiba egokia izan daiteke.

Bioerregai berriztagarria da: landare edo animalia jatorriko edozein substantzia organiko erabil daiteke, baita eraldaketa natural edo artifizialen ondorioz sortzen diren materialak ere. Gainera, gure inguruan hain zabalduta dauden bi sektoretako hondakinak, mendikoak eta nekazaritzakoak, berrerabiltzeko aukera ematen du. Biomasarako erregaia pelletak, egurra, ezpalak, fruitu lehorren azalak edota oliba hezurak izan daitezke.

Nekazaritza guneeetan eta herri txikietan lehengai horiek eskura dardela ikusita, biomasa galdara ugari jartzen direla nabarmendu dute sektoreko profesionalak. Horren aldeko apustua egiten denean erabiltzaile bakoitzaren beharretara hobekien zein egokitzen den aztertu behar izaten dute: pellet galdarak, egur galdarak eta pelleta eta egurra konbinatzen dituzten sistemak diragehien jartzen direnak.

Gasoliozko galdara biomasa galdara batekin ordezkatzeko egin beharreko inbertsioa, bertze sistema batzuk jartzerakoan egin beharrekoa baino txikiagoa dela azpimarratu behar da. Onura, aldiz, nabarmena da: gasoliozko galdara batekin alderatuta, energia kontsumoa % 40-50

murritztea dakar biomasak. Berokuntza sistema eraginkorra da, adituek diote nahikoa dela 12 kW-ko potentzia duen galdara bat 100 metro koadroko espazio bat berotzeko. Horretarako, hori bai, eraikinak nahitaez ongi isolatuta egon beharko du.

Biomasa galdarak, instalazio kolektiboetan du errentagarritasunik handiena. Hori jakinik, badira eskualdean horren alde egin duten udalak eta eskoletan, kiroldegian, Herriko Etxean... eraikina eta ur sanitarioa berotzeko biomasa erabiltzen dutenak.

Dena den, instalazio kolektibo bat egin aurretik, badira kontuan izan behar diren baldintza batzuk: galdara gela bat behar da, galdara zentralizatua kokatzeko eta bioerregaia gordetzeko. Galdara gelarik ez bada, horretarako espazio bat egokitu beharko da eta silo bat eraiki behar da bioerregaia biltegiratzeko.

Baimenduta eta erregistratuta dauden enpresa espezializatuak arduratu behar dute instalazioaz eta ikuskapenaz, eta instalazioa 70 kwtik gorakoa bada bakarrik izanen da beharrezkoa proiektu bat prestatzea. Galdarak eta bioerregaia metatzeko siloak pisu handia har dezaketenez, eraikinaren egoera zein den ere ikusi beharko da: eraikin bakoitzaren ezaugarriak eta kontserbazio egoera zein den aztertu, egitura indartu behar ote den jakiteko.



Iturgintza lanak
Energia Berriztagarriak
Aire girotua

Finantziazioa eskatu!

669 413 790 · ELIZONDO



AEROTERMIA

kosner
Climatización eficiente

EGUR ETA PELLET GÁLDARAK

KWB

ZORU BERO EMAILEA

GREENHEISS
EFFICIENCY SYSTEMS




**ITURGINTZA, BEROKUNTZA
ETA ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK**

948 450 063 - 609 614 214
info@berotza.es-www.berotza.es
31745 ITUREN (Na)



BEROGAILUA



150m
AEROTERMIA ETA GEOTERMIA



EGUZKI PLAKAK



GÁLDARA MISTOA



GÁLDARA




egurpellet

PELLET ZAKUAK ETXERAINO






egurpellet.com | info@egurpellet.com | T 623 246 300



Energia komunitateak: elkarlana giltzarri

tinkaenergiak
www.tinkaenergiak.com | tink@tinkaenergiak.com



Pol. Ind. Zozaia Errota | **ZOZAIA**
948 452 772 | 607 631 881 | 637 895 032

Jauarena
Instalazio
elektrikoak

**ELEKTRIZITATEA
EGUZKI PANELAK
ELEKTROGAILUAK
MANTENIMENDU
INDUSTRIALA**



Probextu eguzkiaren
energia eta **HASI
AURREZTEN!**



Proiektuak, baimenak
eta diru-laguntzak
bideratzen ditugu

**Ekoiztu zure energia,
izan EKologikoa**

Denda. 948 631 217 - T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com - www.jaurena.net

Energia komunitateak, herritar, eragile zein erakunde publikoen elkarlanaren emaitza dira. Irabazi asmorik gabeko elkarteak dira eta gaur egungo energia eredua zalantzan jarri eta energia berriztagarrien aldeko apustua egin, burujabetzarako pausoak ematea dute helburu.

TTPI-TTAPAREN eremuan, zazpi energia komunitate daude. Eguzki panelen instalazio kolektibo bat jartzea izan da guztien lehenbiziko proiektua, baina ez dute horretara mugatu nahi beraien jarduna. Energia gaietan formazioa ere eskaini nahi dute: «heziketa, sentsibilizazioa, kontzientziazioa eta kontsumo ohiturak aldatzea sustatuz».

LeitzEKO EBK

Leitzarrak izan ziren eskualdean aitzindari. 2016 eta 2020 artean Leitzako Udalak, bere argindar horniduran hobekuntzak egin zituen eta energia berriztagarrien aldeko apustua egin zutenean, aldaketarako lehenbiziko oinarriak jarri zituztela azaldu dute LeitzEKO EBK-ko kideek: «Herriko hornidura sarean hobekuntzak egin ondoren, 2021ean lehenbiziko bilerak egin genituen Leitzako Udalak, Goienerrek eta hainbat herritarrek. 2022an deialdia herriari zabaldu eta 2023ko apirilean lortu genuen kooperatiba gisa erregistratzea». Gaur egun 206 bazkide osatzen dute Leitzako energia komunitatea: «norbanakoak, komertzioak, elkarteak,

Udalak...». Bazkideen artean banaketa ere egin dute: «batzuk eguzki panelen instalazioan sartuta daude eta beste batzuk, energiaren inguruan gogoeta egiteko, hausnarketa horiek erakarrita egin dira taldeko kide».

2023ko apirilean energia komunitatea erregistratu eta azarorako martxan zuten lehenbiziko proiektua: «herriko udal kiroldegian 121 kW-ko eguzki panelen instalazioa pentsatu, gauzatu eta legeztatu genuen». Orain, bigarren instalazio bat dute eskuartean: «60 kW-ko instalazio bat pentsatu, gauzatu eta legeztatzeaz gain, jabetgo publiko-pribatukoa den estalki bat erabiltzeko akordioa egin dugu eta proiektua urriaren 15erako bukatuta egotea aurreikusten dugu».

BixtuBera

2023ko udaberrian hasi zuen ibilbidea BixtuBera energia komunitateak: «Berako Udalak hitzaldi batzuk antoaltu zituen, energia komunitate bat sortzeko zegoen interesa neurtuz. Hitzaldien arrakasta ikusita, Komunitatea sortzeko prozesu parte hartzailea hasi zen eta 2024ko urtarrilean kooperatiba ofizialki eratu zen». Geroztik, galtza bete lan izan dute: «hainbat hitzaldi eman ditugu eta gure lehenbiziko instalazioa eraiki eta martxan jarri dugu. Gainera, kooperatiba beraren barne bizitza eta betebeharren inguruan ikasten ari gara egunero». 70 bazkide osatzen dute energia komunitatea eta taldea handitzeko asmoa dutela azaldu dute:



BIXTUBERA



ZIMIZTE

«Udazkenean bazkidetza kanpaina jarriko dugu martxan. Bigarren instalazio bat eraikitzeke asmoa dugu, baina oraindik proiektu fasean gaude. Bien bitartean, hitzaldiak ematen segitzeko asmoa dugu gure ekimena zabaltzen joan dadin».

Urkilo Amaiurren

Amaiurko Urkilo Energia Komunitatea 2024ko udan sortu zuten. Taldeko kideek azaldu dute zein izan zen prozesua: «2024ko otsailean, talde eragileak osatzen genuenok formakuntza hartu genuen hainbat gauzen inguruan: gizarte kohesioa, energia berriztagarriak, halako elkarte edo komunitateen araudia... Formakuntza hau Baztango Udalak bultzatu zuen. Ondotik komunitatea bera eratu eta talde eragileko partaideok elkarteko bazkide izatera pasa ginen». Gaur egun 32 bazkidek osatzen dute Urkilo Energia Komunitatea. Lehenbiziko proiektua lantzen ari dira: «herriko frontoiaren estalkian panel fotovoltaikoak jarri nahi ditugu, guk

geuk sortutako energia kontsumitzeko. Instalazioa egiteko zain gaude. Urriaren erdialderako martxan izanen dugula aurreikusten dugu. Proiektu honetan komunitateko kide diren 24 bazkidek parte hartuko dute».

Anizko Energia Komunitatea

2024ko abenduan egin zuten Anizko Energia Komunitatea sortzeko batzarra. Argi zuten zein izanen zen lehenbiziko proiektua: «aniztarrendako energia sortzeko instalazio fotovoltaikoak». Frontoia udal eraikina izaki, udalarekin hitzarmena sinatu zuten teilatuan eguzki panelak paratzeko. 156 eguzki panel jarri ditugu eta apirilaz geroztik martxan ditugu. 42 bazkide gara komunitate energetikoan eta 28 familia daude proiektuaren barrenean». Komunitateko kideek diote kontent daudela izandako harrerarekin: Anizen dauden etxeen %75 sartu da proiektuan: etxebizitzak, landetxeak, elkarteak, udala... ikusiko da etorkizunean zein proiektu gehiago landuko diren».

Zimizte Lekarozen

Herritar talde baten interesaren ondorioz martxoaren hasieran batzar irekia deitu zuen Baztango Udalak Lekarozen. Komunitate energetiko bat sortzeko aukeraz solastatu eta prozesurako formakuntza eta lankidetza eskaini zituzten eta interesa bazela ikusita, «taldetxo bat elkartu eta talde eragileak izanen zena zehaztuz joan ginen». Komunitatea sortzeko prozesua jarri zuten orduan martxan: «Udaberrian zenbait formakuntza saio izan genituen eta



ANIZKO ENERGIA KOMUNITATEA



Tximiniak

Gas, gasolio eta biomasa galdara eta berogailuak

Santiago, 93 ELIZONDO - T. 948 452 126
info@honestolopez.com
www.honestolopez.com



KLIMARGI
ZERBITZUA

**GAS GALDAREN
KONPONKETA ETA ALDAKETA**

AIRE GIROTUA ETA AEROTERMIA

ZERBITZU TEKNIKOAK

**KLIMATIZAZIO ETA ELEKTRIZITATE
INSTALAZIOEN KONPONTZE ETA
MANTENTZE LANAK**

ITURGINTZA KONPONKETAK

**KLIMATIZAZIO
INSTALAZIO EFIZIENTEA**

**ENPRESA ETA PARTIKULARREI
ZERBITZUA**

ENPRESA BAIMENDUA



622 857 904

klimargi2025@gmail.com
OIEREGI



Parke eoliko eta fotovoltaikoetarako azterketa geoteknikoak eta egituren saiakuntzak (POT)

Espainia mailan eta nazioartean
lan egiten dugu



www.geea.es

696 435 907 • 606 507 335



Berokuntza • Gasa • Eguzki-plakak
Elektrizitatea • Zoru bero emaila
Biomasa • Aerotermia



T. 606 337 427 | OIZ
info@ezpelura.com
www.ezpelura.com



EKHITEN

formakuntza hartu genuen eta komunitatearen izena, mota, helburuak, eta estatutuak izanen zirenak definituz joan ginen». Baztango Udala-ekin hitzarmena sinatu eta ekainean eratu zuten Lekarozko Zimizte komunitate energetikoa: «Irabazi asmorik gabeko elkarte da, parte hartzea irekia eta borondatezkoa duena». Momentuz hamar bazkidek eta Baztango Udalak osatzen dute energia komunitatea: «datozten hila-beteetan proiektu zehatzak definitzen hasiko gara».

Ekhiten Lesakan

Ekhiten Lesakako energia komunitatea sortzeko batzarra maiatzaren 5ean egin zuten: «hogeita hamar lagun behar genituen komunitatea martxan jartzeko eta hirurogeik eman dute izena». Lesakako Udala ere komunitateko kidea dela azaldu dute: «herriko eraikin publikoen teilatuak proiektuaren eskura jarriko ditu eguzki panelak jartzeko». Helburua, «herriarren parte hartze aktiboarekin, energia burujabetza lortzeko bidean aitzinera egitea» dela diote: «ez da energia sortzea bakarrik, argindar enpresa handiekin menpekotasuna murriztea, energia kontsumitzeko ereduaz gogoeta egin, herritarrak sensibilizatu... bada zer landu». Energia hitzaren zentzu zabala hartuko dute kontuan: «elektrizitatea, garraioa, hondakinak...». Inguruko kooperatibekin sarea sortzea ere interesgarria iruditzen zaie: «dirulaguntzak badaude gisa honetako proiektuak lantzeko eta herrian zer egin dezakegun ikusi nahi dugu».

GoiEkhi Goizuetan

2023an energia komunitateen inguruan herrian egin zuten hitzaldi bat izan zen Goizuetako Energia Komunitatearen abiapuntua: «Sei lagunek taldea elkartu zen eta bi urtez proiektuari forma ematen aritu ondotik, 2024ko apirilean erabaki zuten GoiEkhi sortu eta Goizukoop kooperatibaren barruan txertatzea». 2025eko uztailaren 21ean egin zuten bigarren batzarra eta 65 kidek emana zuten izena GoiEkhin. Pilota plazako teitlatuan 55 kW-ko instalazioa jartzeko azken lanak bukatzen ari direla azaldu dute, «urriaren 15erako lanek bukatuta egon beharra dute». 48 bazkidek parte hartuko dute lehenbiziko instalazio honetan eta eskara eskaintza baino handiagoa izan denez, bigarren instalazio bat martxan jartzea ere aurreikusi dute: «Udalak Asinkon duen pabiloiaren eta suhiltzaileen eraikineko teilatuetan bigarren instalazio bat jartzeko asmoa dugu. Epe motzean izena emateko zerrendak berriz ere irekiko ditugu».



GOIEKHI



«Herriarrek elkarlanean, kultura energetiko berri bat garatu nahi dugu»

LEIRE ROS SORAVILLA (NASUVINSA)

Esku artean hainbat erronka dituzte: «Energia erabiltzeko eredu aldatzea, energia komunitatearen kontzeptua ezagutaraztea, kontsumo arduratsu eta kontzientzia bat sustatzea edota herritarren beharrak erdigunean jarrita, elkarlana sustatzea».

formakuntza eskaintzea eta sentsibilizazio kanpainen bidez zabaltzen joatea». Tailerrak antolatzen dituzte horretarako: «Argindar fakturak irakurtzen ikasteko tailerrek, adibidez, arrakasta izaten dute. Herriarrei funtsezko kontzeptuak ulertzeko laguntza eskaintzen diegu».

Energia komunitateak sortzen laguntzeko, Nafarroako Komunitatea Eraldatzeko Bulegoak ireki zituzten 2024an. NASUVINSAk kudeatutako eta Nafarroako Gobernuak eta IDAEk Susperraldirako eta Erresilientzarako Mekanismoaren funtsekin bultzatutako proiektua da eta horrela, trantsizio energetikorako bidean, herriarrei birtarteko bat eskaini nahi diete.

Nafarroako Mendialdean ari da lanean Leire Ros teknikaria eta energia komunitateei beharrezkoa duten aholkularitza eta laguntza eskaintzen dizkietela azaldu du: «Tokian tokiko ekintza taldeekin elkarlanean ari gara eta herriarrek informatu, sentsibilizatu eta energia komunitateak martxan jartzeko beharrezkoa den aholkularitza tekniko, juridikoa eta administrazioa eskaintzen diegu».

Izan ere, Rosen ustez funtsezkoa da tokiko beharretara egokitzea: «herri bakoitzean dauden beharrak, baliabideak, indarguneak eta ahulguneak mahai gainean jarri eta horiek aztertuta ondorengo zehaztu behar dira eman beharrek hurrengo pausuak». Horretarako, parte hartze prozesuak egin izan dituzte: «gogoetarako bideak irekiz».

Behar eta aukeretatik abiatuta, hainbat proiektu landu daitezkeelako: «Autokontsumo partekatua, mugikortasun iraunkorra, baliabide energetikoen kudeaketak, efizientzia, kontzientzia...».

Formazioari ere garrantzia eman nahi diote: «energia eredu berriak mahai gainean jarri nahi ditugu eta horretarako beharrezkoa da energia trantsizioaren kulturean

«Nafarroako energia komunitateekin esku ari gara lanean»

Dagoeneko martxan dauden energia komunitateekin esku ari dira lanean eta askotariko laguntza eskaintzen diete: «dirulaguntzak jasotzeko beharrezkoa den dokumentazioa eman, dokumentuak gainbegiratu, proiektu teknikoak bertatik bertara ezagutu eta aztertzen ditugu». Rosen ustez, aurrerapauso ugari eman dira arlo horretan: «geroz eta energia komunitatea gehiago ari dira sortzen Nafarroan». Datua ere gaineratu du: «Hemendik urte bukaerara arte, Nafarroan beste hemezortzi energia komunitate sustatu nahi ditugu».

INFORMAZIO GEHIAGO

www.otcnafarra.es

DONEZTEBE

Merkatarien karrika, 6 | 848 420 140
bztan-bidasoa@nasuvinsa.es

LEITZA

Leitzako Udala
948 510 009



- ITURGINTZA • BEROKUNTZA • KLIMATIZAZIOA •
- EGUZKI-PLAKEN INSTALAZIOA •
- AEROTERMIA • BIOMASA •
- HOZTEKO ETA BEROTZEKO ZORU ERRADIATZAILEA •
- BAINUGELEN ZAHARBERRITzea •
- BAINUGELAKO ALTZARIAK •
- GALDARA ALDAKETEN FINANTZIAZIOA:
% 0 LEHENDABIZIKO 12 HILABETETAN •

Leurtzako-etorbidea, 29. URROZ
678 99 40 00 • babazeiturgintza@gmail.com

«Bezero bakoitzari irtenbiderik onena eskaintzen diogu»

JAVIER HEREDIA FERNANDEZ ACIMUTH



Badira aldaketei aurrea hartzeko gai diren pertsonak eta esan liteke Javier Heredia horietako bat dela. Energia berriztagarriei eta eraginkortasun energetikoari buruz inork gutxik hitz egiten zuen garaian, apustu sendoa egin zuen berak: «bi arlo horietan eskusiboki espezializatutako Nafarroako lehenbiziko enpresetako bat sortu nuen». Handik urte batzuetara sortu zen Acimuth: «Energia berriztagarrietan, eraginkortasun energetikoan eta domotikan espezialistak gara eta bezero bakoitzaren beharrak kontuan hartuta, irtenbiderik onena eskaintzea da gure helburua».

Urtetako esperientzia

Urtetako esperientzia dute sektorean eta eskura dituzten bitarteko teknologiko guztiak erabiltzen dituzte: «energia aholkulariak gara eta uste dugu etorkizunera begira jartzea funtsezkoa dela». Argi dute zeintzuk diren beraien oinarriak: «Gure proiektuetan energia aurreztea, eraginkortasun energetikoa lortzea eta energia berriztagarrien aldeko apustua egitea dugu beti burutan». Bezeroaren beharrak zeintzuk diren ikusi eta azterketaz zehatz bat egin ondoren, lankidetzaz hitzarmen bat egiten dute ahalik eta emaitzarik onena lortzeko: «Ero-

sotasuna, energia aurreztea eta efizientzia energetikoa eskaintzen duten sistemak jartzen ditugu, energia berriztagarriak eta domotika baliatuz».

Heredia azaldu duenez, Acimuthen helburu nagusia ustiapen eta erabilera kostuak murriztea da: «Sektore osoaren kontrola eta ezagutza dugu, eta eskaintza bezeroaren beharretara egokitzen dugu». Hori egin ahal izateko, berriztagarri guztiekin egiten dute lan: «energia fotovoltaikoa, aerotermia, biomasa... erabiltzen ditugu gure instalazioetan eta berriztagarri guztiak software bakar batean integratzen ditugu, guztia modu erraz batean kontrolatu ahal izateko».

Berriztagarrien sektorea oso aldatu dela jakinda, prest egotea ezinbestekoa da: «Eskaintzen dituzten dirulaguntzengatik, teknologiaren bilakaeragatik... etengabe aldatzen den sektorea da. Kontsumo balantze negatiboa duten eraikinak izateko trantsizio bat egitea ezinbestekoa da». Acimuthen oso zehaztuak dituzte zeintzuk diren etorkizunera begira eman beharreko pausoak: «urte batzuen buruan panorama energetikoa aldatu behar dugu, erabiltzaile bakoitzak ahalik eta autosufizienteena izan behar du, eta trantsizio horretan laguntzen diegu». Kontziente dira ez dela egun batetik bestera ematen den aldaketa: «trantsizioa urtetan planifikatzen diegu: gehien non gastatzen duten aztertzen dugu eta ekintza ezberdinak proposatzen dizkiegu».

Adibide bat jarri du: «imajinatu familia baten gasturik handiena argindarretan dela. Aurten, fotovoltaikoa jarriko diegu, eta gordailua prest utziko diegu hurrengo pausoa eman eta aerotermia jartzeko. Zentzuz egindako inbertsioa da, norabide zehatz batean emandako pausoak dira, dena prest izateko, etorkizuna orainaldi bihurtzen denerako».



AUTOKONTSUMOA

Murriztu faktura elektrikoa eta handitu zure atonomia gure soluzio fotovoltaikoarekin. Aprobetxatu energia garbia eta berriztagarria dirua aurreztu eta zure menpekotasun energetikoa murrizten duzun bitartean. Kontsumitutako energiarengatik fakturan 0 € ordaintzea posible da. **Inbertitu etorkizun jasangarri eta ekonomiko batean.**



AEROTERMIA

Gaur egun, **klimatizazio irtenbiderik eraginkorrena eta jasangarriena** da aeroterminia, eta aire energia eraldatzen du operazio kostu baxuekin. Klimatizazio aplikazio ugari dituen irtenbide moldakor eta ekologiko honetan inbertitzea oso errentagarria da.

DOMOTIKA

Kontrolatu argiztapena eta klimatizazioa automatikoki, gozatu musikaz gela bakoitzean, integratu eta kontrolatu instalazio fotovoltaikoak, termikoak, geotermikoak eta aerotermikoak, eta ikusi bakoitzaren kontsumoa. Erabaki noiz kargatu ibilgailu elektrikoa soberakinekin, eta bermatu zure segurtasuna urrutitik erabil daitezkeen zaintza sistemekin.





Carlos Pacheco

**ENERGIA
BERRIZTAGARRIAK**

Legia, 19 - BERA

Tel: 637 151 170

IÑIGO ETXARTE ARBURUA

- Iturgintza lanak
- Pellet eta egurrarekin berokuntza instalazioak
- Gas instalazioak
- Aerotermia



Goikolanda 8A | 31760 ETXALAR
T. 657 791 507 | 948 635 256
pelletsbaxtanbidasoa.com

«Energia berriztagarrien instalazioetan espezialistak gara»

GORKA CUBERO GALARREGI TXARUTA ITURGINTZA


UTZITAKO ARGAZKIA

dea. Badira beti eskaini behar dituzun iturgintza lan klasikoak, baina berritzailea izan, merkatuan dauden beharrak eta eskariak zeintzuk diren ikusi eta pausoa eman beharra dago». Hala, iturgintza, berokuntza, gasa eta energia berriztagarriei lotutako lanak egiten dituzte.

Nabarmendu du aitzindarietako bat izan zela aerotermia instalazioetan: «Orain modan dago eta badirudi aerotermia gauza berria dela, baina duela hogeita urte egin nuen nik lehenbiziko instalazioa Oiartzunen. Azken hogeita urteetan auskalo zenbat egin izanen ditudan!».

Zer ikusi, hura ikasi dio esaera zaharrek eta Gorka Cubero Galarregiren kasuan hala izan zela erran liteke: «Aita iturgina zen eta haurra nintzelarik, orduak ematen nituen bere tuboekin saltsan». Jolasean hartutako afizioa, ofizio bihurtzea erabaki zuen denborarekin: «Konturatu nintzen hori zela nire pasioa eta iturgina izan nahi nuela». Aita izan zuen irakasle: «Hamasei urterekin hasi nintzen eta dagoeneko, hogeita zortzi urte daramatzat honetan lanean».

Denbora tarte horretan, lanbidea ikasi eta garai berrietara egokitu behar izan du: «asko aldatu da gure lanbi-

Bide berriak

Bide berriei atea ireki eta energia berriztagarrien arloan egin dute beraien apustua: «aerotermia, biomasa eta geotermia instalazioak egiten ditugu; energia berriztagarrien instalazioetan espezialistak gara». Aitortu du gozatu egiten duela gisa horretako lanetan: puzzle bat osatzea bezala da, piezaz pieza lotzen joan behar duzu azken emaitza lortu arte».

Erabiltzen dituzten materialetan ere jarri nahi izan du azpimarra: «garai batean beruna, kobrea, burdina... erabiltzen zen eta dena soldatu behar izaten zen. Orain dena plastikoa edo


gaztelu scl
ITURGINTZA
• KLIMATIZAZIOA:

- Biomasan adituak
- Aerotermia
- Gas, gasoil, pellet eta egur galdarak
- Ekoizpen sistema konbinatuak

• ETXEBIBIZITZEN ZIURTAGIRI ENERGETIKOAK

- **KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUAK
- **FINANTZATZEKO AUKERA

Landa Behikoa Industrialdea, 21 31880 LEITZA
info@fontaneriagaztelu.com

T. 948 510 086
www.fontaneriagaztelu.com

geruza anitzetako materialekin egin da eta kalitate handia izateaz gain, lanean aritzeko orduan asko errazten du prozesua. Makina berezi batzuekin presioa eginez lotzen dira piezak».

Obra berrietan aritzen da, baina baita egokitzapen lanetan ere: «baserri aunitzetan egin ditugu instalazioen zaharberritzeak». Kasu horietan, bezeroen beharrak eta dauden aukerak aztertzea ezinbertzekoa dela azaldu du: «gure inguruan egurrezko galdarek ere oso ongi funtzionatzen dute. Baserri eta etxebizitza aunitzetan jarri ditugu. Obra handirik egin gabe, kasu aunitzetan eskura duten egurrari irtenbidea eman eta berokuntza sistema eta ura berotzeko modua lortzen dituzte».

Zerbitzu gehigarriak

Txaruta enpresaren zerbitzua ez da kalitatezko instalazio bat egitera mugatzen: «finantziario aukerak eskaini eta dirulaguntzak eskaerak egiteko beharrezkoa tramiteak ere gure gain hartzen ditugu». Eskaintzen

duten zerbitzu gehigarri bat dela dio eta bezeroek aunitz eskertzen dutela. Prozesua errazten da: «Bezeroek instalazio mota aukeratu eta Txarutako langileok arduratzen gara esku-ratu daitezkeen dirulaguntzak kontsultatu eta beharrezko tramite guztiak egiteaz». Ez dela edonolako eskaintza uste du: «paper artean galduta ibiltzea ez da erraza sekula ere horretan aritu ez denarentzat. Guk badakigu zein ate diren jo behar direnak».

Bezeroei eskaintzen dieten tratu hurbila ere nabarmendu nahi izan du Cuberok: «hemen inguruan denek ezagutzen gaituzte, langileak ere Irurita eta Oizkoak dira». Ezagunak izatea eta behar denean erantzutea, bi horiek dira bere ustez, Txaruta enpresaren bereizgarri: «esperientzia handiko profesionalak gara, tratu hurbila eskaintzen dugu, telefonoa gainean izaten dugu eta saiatzeko gara zerbitzua ahalik eta lasterren eskaintzen. Ez dago jai egunik bezero batek gure laguntza behar duela esanez deitzen digunean».



AEROTERMIA, BIOMASA, GEOTERMIA

Energia Berriztagarrien instalazioetan espezialistak

Ingurumenarekin konprometituak

FINANTZIAZIO AUKERA

DIRU LAGUNTZAK TRAMITATZEN LAGUNDUKO DIZUGU

www.txarutarenovables.com



Zaldubia Pol. A nabea
31730 IRURITA **948 451 728**

Sto. Domingo
31750 GAZTELU **659 234 825**

Nafarroako Gobernuak
baimendutako instalatzaileak

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



«Isolatzaille ekologiko eta jasangarria eskaintzen dugu»

IÑIGO PUNCEL ARANDIGOIEN AISLANAT



UTZITAKO ARGAZKIA

ri lotuta dagoela ere azaldu du eta bidean ia ez dela hondakinik sortzen nabarmendu du: «ekoizpenean eta aplikazioan sortzen diren hondakin urriak berriz birziklatu eta berrera-bili egiten dira».

Prozesua

Zelulosa lortzeko egunkarietako orriek ez dute tratamendu berezirik behar: «etxeko ganbaran urtetan gordeta gelditzen diren egunkariak dira horren erakusle. Zertxobait horituko dira, akaso, baina osorik segitzen dute luzaroan».

Orri horiek berez dituzten propietateak baliatu eta isolatzaille bihurtzeko prozesua ere ez dela konplexua dio: «Egunkariak txikitu, zuntzak desegin eta elur malutak bezala gelditzen dira. Hori pareta bat isolatzeko erabiltzen denean, zuntzen artean oxigenoa gelditzen da eta horrek egiten du isolatzaille lana».

Edozein eraikinetan erabil liteke isolatzaille mota hau, baina bada bete beharreko baldintza bat: «Sistema hau erabili ahal izateko beharrezkoa da paretan haize kamara bat egotea. Zulotxo batzuk egiten dira paretan eta haizea botatzen duen makina batekin, hutsunea betetzen da. Etxeak, lantegiak... mota guztietako eraikinetan egin daiteke». Dena den, obra berria ez denetan, eraikinaren egoera aztertu behar izaten da: «Norbaitek gure zerbitzua kontratatzeke interesa duenean, bertara joan eta teknikari batekin aztertzen dugu kasua».

Errentagarritasuna

Errentagarritasunaz ere aritu da so-lasean: «egindako inbertsioa bi eta bost urte artean amortizatu daiteke. Eraikin bat ongi isolatua baldin badago, berokuntza eta aire girotuko fakturretan nabaritzen da aldea, %54raino murriztu baitaiteke kostua».

Iñigo eta Julen Puncel Arandigoi enpresak 2011n sortu zuten AISLANat enpresa. Biek ala biek urteak zera-matzaten isolamendurako material ekologikoekin lanean eta alternati-ba berrien bila hasi zirenean ikusi zuten zelulosa zela bilatzen zuten lehengaia: «Nafarroan ekoizten diren egunkarien soberakinak erabiliz, isolatzaille guztiz ekologikoa ekoizten dugu».

Ekonomia zirkularra

Ekonomia zirkularren adibide gar-bia dira: «urtero, 2.000 tona egunka-ri paper transformatu eta zelulosan bihurtzen ditugu. Zero kilometroko lehengaia erabiliz, prestazio handiko produktua sortzen dugu eta gaine-rako isolatzailleak baino prezio leihakorragoan eskaintzen diegu gure bezeroei».

Puncelen hitzetan eskaintzen duten alternati-ba, «ekologikoa, ekonomikoa, eraginkorra eta kalitatezkoa da». Datuak jarri ditu mahai gainean: «Erabiltzen dugun lehengaiaren %85 birziklatutako materiala da. Gainera, ekoizpen prozesuan kontsumitzen den energia kopurua ere bestelako lehengaiak sortzean kontsumitzen dena baino txikiagoa da». Bere ekoiz-pena basoen kudeaketa arduratsua-

JAVI PETRIRENA

Iturgintza eta elektrizitatea



AEROTERMIA

**EGUR ETA PELLET
GALDARAK**

GAS GALDARAK

**INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK**

**INSTALAZIO
FOTOVOLTAIKOAK**

**INSTALAZIOEN
FINANTZIAKETA %0
(24 hilabete)**

Instalatzaille baimendua

**Tel. 679 35 49 47
jpinstalazioak@gmail.com**

ISOLATU ZURE ETXEA ETA AURREZTU

Isolamendu termikoa eta akustikoa

% 50 aurreztu

Egun batean

Obrarik gabe



BEGIRATU ZEIN
ERRAZA DEN
JARTZEA



AislaNat, **Nafarroan ekoiztutako**
zelulosazko isolamendu bakarra.

Isolatu zure etxea zelulosarekin,
egun batean,
obrarik gabe,
gutxi gastatuta
eta **produktu ekologiko** batekin.

«Instalazio eraginkorrak izateko modua bilatu beharko genuke»

IGOR LASAGA TELLETXEA MATXAKO ITURGINTZA



UTZITAKO ARGAZKIA

«Ez dut uste sistema perfektu bat eta bakarra dagoenik. Kasu bakoitza banaan bana ongi aztertu beharra dago. Bakoitzak badu bere bizimodua, bere egoera, bere kontsumo ohiturak... eta begiratu egin behar da kasuz kasu zer komeni zaion eta zer ez». Izan ere, idealena dena ez da beti posible: «zertarako prest dagoen eta zertarako ez, zenbateko inbertsioa egin nahi duen... dena izan behar da kontuan eta guri dagokigu alternatibak eskaintzea. Batzuentzat sistemarik idealena bat izan daiteke, baina ekonomikoki kostuari ezin badio aurre egin, ez da egokiena izanen». Kontuan hartu beharreko hainbat faktore daude eta aukera ugari. Hori dela eta, argi du bere lanaren parte dela aholkulari izatea: «dauden aukera guztiak mahai gainean jarri behar dira. Momentu jakin batean, sistema batek du ospea; hurrengoan, bertze batek. Modak alde batera utzi eta guk eskaini dezakeguna entzutea ere garrantzitsua da». Berriena, batzuetan, ez delako egokiena: «garai bateko sistemak bazituzten beraien indargune eta gabeziak eta oraingoak ere badituzte».

Instalazioa osorik aldatu beharrean, egokitzapen bat egitea ere alternatiba izan daitekeela azpimarratu du: «ikusi behar da zer duzun lehenago eta aunitzetan duzuna egokitu eta mantentze lanak eginda, gastu txikiagoa eginda, zure instalazioa eraginkorragoa izatea lortzen duzu». Bere ustez, hori da gakoa: «dugun instalazioa ahalik eta eraginkorrena izateari eman beharko genioke garrantzia».

Instalazioa eta makina egokia jartzeaz gain, geroko lanak ere ez dira ahaztu behar: «Sistemaren errendimenduarien puska handi bat haren garbiketa eta zaintzarekin lotua dago. Kalitatezko aparatua erosi eta instalazioa ongi egitea bezain garrantzitsua da, behar bezala mantentzea». Eta hortan ere bai, aritzen da Matxako.

Aitak hasitako bideari segida emanez, 24 urte daramatza iturgin lanetan Igor Lasaga Telletxeak. Bere buruari etiketa berezirik jarri gabe, «betiko iturgintza zerbitzuak» eskaintzen dituela azaldu du: «kalefakzioa, gasa, iturgintza, galdarak... aniztasun hori azpimarratuko nuke». Betiko zerbitzuak bai, baina gaur egunera egokituta: «oinarria mantendu dugu, baina lan egiteko moduak aunitz aldatu dira. Urteekin eskuratu dugun esperientzia hori da bezeroen eskuara jartzen saiatzen garena».

Aldaketa

Iturgin lanetan hasi zenetik, garaiak aldatu dira eta bezeroen eskaeretan ere aldaketa izan dela uste du: «jendea betikoarekin aspertua dagoela erranen nuke eta, gaur egun, badago alternatiba berrien bila aritzeko joera bat: batzuk sistema eraginkorragoen bila ari dira, bertzeek ekologikoagoak nahiago dituzte... denetarik dago». Horren ondorioz, profesionalak merkatua ongi ezagutu eta egunean egon behar izaten dute: «lantegi guztietan bezala, denborak aldatzen dira eta behartuta zaude pixka bat denetarik ezagutu eta ikastera».

Zein aukera dauden ikusi eta ikastea bertzerik ez dago. Berak argi du:



**Iturgintza lanak
Berokuntza mota guztiak
Galdaren instalazioak**

*"Baxi" markan
eskaintza berezia.
Eskatu
aurrekontua*

BAXI
LA NUEVA CLIMATIZACIÓN

609 808 756 • BERA



**PELLET ETA
EGUR GALDARAK**

AEROTERMIA

AIRE GIROTUA



Tel. 647 525 516 • ARESO | LEITZA
arkaitzareso@gmail.com

Mundua, bagoaz.

BANOOOA GO!

Irentsi mundua LABORAL Kutxaren GO! txartelarekin.

EZ du komisiorik Estatu
osoko 10.000 kutxazain
baino gehiagotan*.

EZ du komisiorik,
LABORAL Kutxaren aldetik,
atzerriko kutxazainetan**.

**EZ du
komisiorik** dibisa
aldatzeagatik.

EZ DU KOMISIORIK, EZ HEMEN*, EZ ATZERRIAN**

* Zure probintzian dirua komisiorik gabe ateratzeko, LABORAL Kutxaren kutxazain-sarea duzu; zure probintziaz kanpo, berriz, entitate hauek kutxazainak erabil ditzakezu: Caja Rural, Cajamar, Bankinter, Caja de Ingenieros, Cashzone, Deutsche Bank, Arquia Banca, Euro Automatic Cash eta Euronet WorldWide.

** LABORAL Kutxak ez du komisiorik kobratuko atzerriko kutxazainetan. Kutxazainaren jabeak komisio bat ezar lezake kutxazaina erabiltzeagatik (LABORAL Kutxak ez).

Abantaila horietaz baliatzeko, LABORAL Kutxaren bezero izan behar duzu, 14 eta 29 urte bitartekoa (biak barne). Horrez gain, 18 urtetik aurrera nahitaezkoa izango da entitate honetan Bizum aktibatuta izatea.



LABORAL
kutxa